ELGOIBAR

# Un pasacalles de la Musika Eskola abrirá hoy los actos de un Carnaval que no se detendrá hasta el martes

El Carnaval Vasco de la Ikastola y el concierto de Sinüose protagonizarán la jornada de mañana

JABI LEON


Una cuadrilla de jóvenes de Elgoibar durante el Carnaval del pasado año. J. LEON

ELGOIBAR. La ciudadanía de Elgoibar tendrá en los próximos días la posibilidad de disfrutar con una nueva edición de las fiestas del carnaval, que volverán a celebrarse con un programa plagado de actividades.

Para empezar, el centro urbano de la villa acogerá esta misma tarde (a partir de las 17.30 horas) el tradicional desfile de Carnaval que organiza la Musika Eskola local. El desfile empezará en Kalegoen plaza y durante el mismo el alumnado del centro de enseñanza musical interpretará diferentes bailes con el acompañamiento de la txaranga. Como cada año, los participantes en el evento realizarán una parada especial en el parque de Maala, donde bailarán y cantarán junto a la banda y el coro de la Musika Eskola.

Como es habitual, la jornada de mañana estará protagonizada por el colorido Carnaval Vasco de la Ikastola. El desfile arrancará a las 15.00 horas en el centro escolar y concluirá en Kalegoen plaza con una exhibición de danzas vascas (en caso de mal tiempo, el acto tendrá lugar en la Ikastola).

Además, el sótano de la Casa de Cultura acogerá este viernes (a las 23.00 horas) el XXIX concierto de Carnaval que organiza el colectivo Sinüose. Un año más, los músicos elgoibartarras Patxi Zabaleta e Iban Urizar sorprenderán al público asistente con una actuación especial en la que no faltarán las sorpresas.

## Un sábado intenso

Como cada año será la del sábado la jornada principal del Carnaval elgoibartarra.

Los actos programados para ese día se pondrán en marcha muy pronto; concretamente, con un pasacalles de los gigantes, cabezudos y zezenzikletas que recorrerá el centro urbano de la localidad a partir de las 12.30 horas (el parque de Lekueder volverá a ser una zona libre de cabezudos).

Por la tarde la actividad comenzará con un karaoke infantil que el grupo de tiempo libre Atxutxiamaika ofrecerá (a partir de las 17.30 horas) en el parque de Maala. Dicho acto estará abierto a la participación de todas las niñas y niños de entre 2 y 12 años, que podrán cantar y bailar canciones vascas hasta las 19.00 horas.

En ese momento dará comienzo un desfile de disfraces y carrozas que estará amenizado por la txaranga Mauxitxa (comenzará en el parque de Maala y concluirá en Kalebarren plaza). En cualquier caso, los eventos programados para el sábado de Carnaval no acabarán ahí, toda vez que el parque de Maala acogerá a partir de medianoche (y hasta las dos de la madrugada) una noche de versiones en la que la ciudadanía podrá interpretar (en grupo o en solitario) canciones seleccionadas previamente (quienes deseen participar en esa sesión de 'play back' podrán inscribirse con antelación o antes del inicio del acto.

**El sábado habrá gigantes y cabezudos, desfile de disfraces, karaoke infantil y noche de versiones**

El Carnaval elgoibartarra llegará a su fin el próximo martes con una jornada que incluirá el espectáculo musical 'Gora Bihotzak!' (a las 17.00 horas en Maala) y un pasacalles a vcargo de la txaranga Mauxitxa, la comparsa de gigantes y el alumnado del grupo Biraka dantza. Ese acto empezará a las 18.15 horas desde Maala, sin presencia de los cabezudos.

## 2025eko orri-markagailuak aurkeztu ditu liburutegiak




Gotzon Garate Udal Liburutegiak joan den asteartean banatu zituen 2025erako kaleratu dituen orri-markagailuak aukeratzeko antolatutako lehiaketaren sariak. Guztira, 718 lan aurkeztu dira sariketaren zortzigarren ediziora eta irabazleak Gonzalo Castro (LH1) eta Adán León (LH6) izan dira irabazleak. Argazkian, saritutako umeak beren lanekin; Maialen Gurrutxaga alkatearen eskutik sariak jaso ondoren.

## El hogar organiza un cursillo de Primeros Auxilios y traslada los bailables del domingo al martes de Carnaval

J. LEON

ELGOIBAR. La asociación Elgoibarko Jubilatuen Elkartea comunica a la ciudadanía que este domingo no se llevará a cabo la habitual sesión vespertina de bailables; toda vez que dicha sesión se traslada al próximo martes de Carnaval.

Ese día, las instalaciones del hogar acogerán (a partir de las 17.30 horas) un baile de disfraces que estará amenizado por DJ Esther; con la particularidad de que a las 19.30 horas se ofrecerá «un picoteo» para las personas mayores que acudan al evento disfrazadas.

### Primeros Auxilios

Elgoibarko Jubilatuen Elkartea ha organizado un cursillo de Primeros Auxilios que será impartido por voluntarios de Cruz Roja los días 5 y 6 de marzo.

Las sesiones de este curso serán en castellano y quienes deseen tomar parte en las mismas pueden apuntarse en la oficina del hogar (el viernes o el lunes, de 11.00 a 12.00 horas).



DEBABARRENA


Montserrat Caballé eta Freddie Mercury Soraluzera gerturatu ziren iaz, Joku Olinpikoek protagonismoa izan zuten inauterietan parte hartzeko. J. LEON

# Bakoitzak bere erara baina eskualdeko herri guztiek dena prest dute mozorroen festa koloretsua ospatzeko

Inauterietarako Deban prestatutako ekintzak gaur bertan jarriko dira martxan eta Mutriku, Soraluze, Mendaro eta Itziarren bihar hasiko dira

JABI LEON

DEBABARRENA. Eskualdeko bizilagunak inauterietan murgilduko dira hurrengo egunetan. Izan ere, dagoeneko dena prest dago Debabarreneko herri ezberdinetan mozorroen festa koloretsua behar bezala ospatzeko. Urtero legez, Udalek eta eragileek ekitaldiz beteriko egitarauak antolatu dituzte datozen jai egunetarako.

Deban inauterien harira prestatutako ekintzak gaur bertan hasiko dira; eta Mutriku, Soraluze, Mendaro eta Itziarren antolatutakoak bihar abiatuko dira.

## Deban eta Itziarren datorrena

Debako inauteriak gaur arratsaldean jarriko dira martxan, Deba Musikaleko ikasle eta irakasleek 17:00etatik aurrera eskainiko duten kalejira batekin.

Bihar, berriz, Deba Musikaleko Banda Txikiak musikaz girotuko du herria arratsalde osoan zehar eta Kolore Anitzek haurrei zuzendutako inauterietako joko-saioa eskainiko du, 18:00etatik aurrera, udaletxeko arkupetan.

Edonola ere, larunbatekoa izango da festa hauetako egunik nagusiena Deban. Jardunaldi horretarako prestatutako egitaraua 10:00etan hasiko da, txistularien kalejira batekin. Ordu erdi beranduago Deba Musikaleko dultzaineroen kalejira izango da eta 11:00etan mozorro lehiaketarako eta desfilerako izen-ematea irekiko da Foruen plazan (desfilea 12:30ean abiatuko da Agirre jauregitik, Debako Musika Bandak girotuta).

Larunbat arratsaldean, musika izango da protagonista nagusia Foruen Plazan: 17:30ean Saioa eta Harkaitz trikitilariek animazio saioa eskainiko dute; eta 19:30etik aurrera Debrass txarangaren txanda izango da (20:00etatik 20:30era arte etenaldia egingo du mozorro lehiaketako sariak banatzeko).

Debako inauteriak borobiltzeko Gaztelekuak antolatutako Talent Show bat izango da datorren asteartean (17:00etan) pilotalekuan.

Itziartarrek, berriz, ostiral honetan ospatuko dituzte inauteriak, Burugorri Martxan eta Lizarbe guraso elkarteak antolatutako festa berezi batekin. Festa hori 16:30ean hasiko da Zabalsoro frontoian eta, urtero bezala, norberak etxetik eramandako jakiekin osatutako askari baten bueltan batuko dira herritarrak. Mokadua jan ondoren, buruhandiak eta mozorro showa izango dira Itziarren.

## Pikomelatosekin Mutrikun

Mutrikuarrek bihar abiatuko dituzte inauteriak, ohitura dutenez, Pikomelatos eta Banda Txikiaren kalejira batekin (16:00etan hasiko da, Ikastolatik). Horren ondoren karaokea eta dantzaldia izango dira beheko Plazan.

Behin motorrak berotuta, Mutrikun prestatutako egitarauak larunbatean izango du jarraipena. Hasteko, Gure Ametsa dantza taldea, txistu taldea eta akordeoi taldea kalejiran aterako dira (12:30ean). Hala ere, arratsaldez izango dira ekintza gehienak: 17:00etan Arima Dance taldearen mozorro lehiaketa hasiko da Miruaitz pilotalekuan; 17:30etik aurrera 2009 eta 2012 urteen artean jaiotako gaztetxoentzako mozorro festa izango da Lapatxoko Gaztelekuan; 19:00etan Pikomelatos eta Musika Bandaren kalejira egongo da (Miruaitz pilotalekutik abiatuta); eta 20:00etatik aurrera disko-festa batekin disfrutatzeko aukera izango da Beheko plazan.

Mutrikuko inauteriak amaitzeko Pontx pailazoaren 'Denok plazara' ikuskizunarekin disfrutatzeko aukera izango da datorren astearteań (17:30ean) eraberritutako Egaña frontoian.

## Marrazki bizidunak Soraluzen

Mozorroen festa bihar abiatuko da Soraluzen, Euskal Aratoste Egunarekin.

Hasteko, eskola-umeen kalejira eta dantzak izango dira, 15:15etik aurrera, Plaentxi herri ikastetxetik Zubi Nagusira. Horren ondoren (16:30ean) txokolate-jana egongo da Kontzejupean; eta hori amaitzerakoan, Iruñeko Donibane auzoko erraldoien kalejira eta dantza herrikoiak (18:30ean herrigunean).

Soraluzen ere, larunbatekoa izango da jai hauetako egunik garrantzitsuena eta inauterien antolakuntzan lanean aritzen diren eragileek marrazki bizidunen gaia aukeratu dute jardunaldi horretarako. Gai horri lotutako mozorroak janzten dutenek 13:00etatik aurrera izango dute mozorro lehiaketa gauzatzeko Kontzejupean jarriko den photocall-ean argazkia ateratzeko aukera.

**Larunbata izango da jaietako egunik nagusiena Deba, Soraluze, Mutriku eta Mendaron; eta Itziarren, berriz, ostirala**

Eguna animatzeko ekitaldiei dagokionez, Latuna Bando txarangaren kalejira (13:00etan hasita, herrigunean) eta Lisker taldearekin dantzaldia (18:00etan, karpan) izango dira.

Soraluzeko inauteriei bukaera ona emateko hainbat ekintza egongo dira datorren asteartean: 17:00etan dantza-erakustaldia izango da kiroldegian; 17:45ean gaitero eta buruhandiak; 18:30ean DJ Kaktus-ekin dantza eta musika; eta 20:00etan mozorro-lehiaketako sari-banaketa.

## Mendaroko festa

Inauteriak bihar hasiko dira Mendaron, Ikastolako umeek ikastetxean bertan eskainiko duten jaialdi batekin (15:30ean).

Herrian, berriz, larunbatean izango dira ekitaldi gehienak. Eguerdian Bizipoza txarangaren kalejira egongo da eta arratsaldean Mugi zaitez! disko festa (17:00etan frontoian), Arno guraso elkarteak eskainitako txokolatada (18:00etan) eta play-back saioa (jarraian).